



Euskal finantza-lankidetza baterantz

Nazioarteko lankidetza-lerro berri bat kolektiboki eratzeari ekingo diogu Euskadin.

Gaur egun eguneratze- eta modernizatzeko-prozesu batean dago Euskadin nazioarteko lankidetzako politika publikoa, Lankidetzari buruzko Euskal Lege Berriaren ortzi-mugarekin. Lehenengo legea onartu zela 15 urte bete diren honetan, egungo testuinguruak, maila globalean planteatzen diren erronka berriak eta metatutako esperientziak birplanteatzera garamatzate gure herrialdetik nazioarteko elkartasuna ordenatzeko baliagarria izan den esparrua, eta horri bultzada berri bat ematera. Berrikuspen horretan, garrantzi berezia du egungo gaitasun guztiak aktibatzeak, baliabide berriak gehitzeak eta justizia globalaren aldeko borrokaren konplexutasun harrigarriari ekitea ahalbidetuko duten erreminta berriak hartzeak.

Horrekin batera, araudi berri bat onartu da Estatu espainolerako, administrazio zentraletik haratago joan nahi izan duen antzeko eguneratze-prozesu baten barruan. Hain zuzen, Estatu-erreformaren elementu esanguratsuenetako bat izan da egiaz artikulatutako sistema bat eraikitzeak eta haren izaera askotarikoa onesteko eztabaida, sistema hori eragile guztien erantzunkidetasunean oinarrituta egongo delarik betiere. Batez ere Estatuaz azpiko administrazio publikoen multzoarenean. Administrazio horiek arkitektura konplexu eta berezia osatzen dute gure ingurunean, behin eta berriz bere balio espezifikoak eta bere lurralde guztien arteko lankidetza kapilarizatzeko gaitasuna erakutsi duen arkitektura osatuz.

Administrazio zentralak politika publiko hori hedatzeko tradizionalki eskueran dituen tresnen aukeraren barruan, finantzaketa-lankidetza elementu esanguratsua izan da. Estatuko lege berriak FEDES sortzea aurreikusten du FONPRODE ordeztuz: lankidetza-funts berriak erregelamendu bat beharko du datozen hilabeteetan, bere aurrekoari baino egikaritzapen errazagoa ahalbidetuko diona, irizpide exigenteagoak sartuz jasangarritasunari dagokionez, bai eta arrazoizko arreta ere giza eskubideak babesteari dagokionez. Kontraprestazio gisa, Estatuaz azpiko lankidetzatik ez dugu antzeko tresnarik izan, Hego globaleko herrialdeetako sektore ekonomikoaren sustapena beti hor egon bada ere autonomia-erkidegoen, diputazioen edo udalerrien estrategietan.

GKEek ere ezin izan dute baliatu beren jarduketara osatzeko eta inpaktua hobetzeko beren bazkide-sareei eta nazioarteko lankidetza hedatzen den errealtateei buruzko ezagutzari esker lagungarria gertatuko litzaiekeen modalitate hori. Kooperatibek, finantza-erakunde etikoek eta ekonomia sozial eta solidarioaren barruko beste eragile batzuek ere ez dute tarte bat aurkitu finantza-lankidetzako tresnen artean, tokiko ekonomiak bultzatzeko eta guztion ongian kontzentratutako ezagutzak eta printzipioak biltzen badituzte ere. Nazioarteko lankidetzaren helburuekin askoz hobeto lerrokatuta badaude ere, sektorearekiko aliantzak enpresa transnazional handiekin planteatu dira tradizionalki, eta

erantzukizun sozial korporatiboaren esparruan betiere. Horrek errezeloak eta zalantza asko planteatzen ditu bere benetako helburuei eta egiazko erabilgarritasunari buruz.

Bestalde, ekosistema bat sortzen hasi da inpaktu soziala duten inbertsioen inguruan. Inbertsio horiek errentagarritasuna uztartzen saiatzen dira itzulkin sozial, ingurumen-arloko eta ekonomiko batekin, inbertitzaileentzat zein Hego globaleko familia eta komunitateentzat. Finantza etikoei zenbait ekimen gure mugetatik haratago babestea ahalbidetu dieten esperientziak eta eragileak azaltzen ere hasi dira, modu endogenoan sortutako garapeneredu batean lagunduz, eta aktibismoko eta konpromiso sozialeko modu berriak ahalbidetuz justizia globalarekin lerrokatutako aurrezpen- eta inbertsio-aukerek.

Prozesu kolektiboa

Euskal lankidetzak, eta konkretuki eLankidetzak, finantza-lankidetzako lerro bat izateko bideari eman nahi dio hasiera. Prozesu kolektibo bat ikusten du, interesa duten eragile guztiei zabalik baina betiere bere lidertzapean, non errealtatearen azterketa batetik eta egungo posibilitateetatik abiatuta, azken urteetan pilatutako esperientzia integratuko den, eta Euskadin eta inguruan erabilgarri dauden gaitasun guztiak artikulatzea lortuko den.

Prozesuak zentzua du modalitate baten eta modalitate hori oinarritzen duten tresnen berezitasuna atxikitzen den neurrian, ekonomia sozial eta solidarioa integratzeko, herritarrak mobilizatzeko eta garapen-alternatiba horizontalak egiteko gai direnak. Gai izango dena, halaber, plus bat gehitzeko giza eskubideen eta genero-ekitatearen defentsan; Euskadiko garapen-politiken koherentzia errazteko, eta garapen ekonomikoko eta prestazioak emateko beren ekimenetan bidezko finantzaketa bat baliatzeko aukerarik izan ez duten sektoreetara iristeko gai, azken horiek funtsezkoak direlarik aurrerabide demokratikoarekin eta Hego globaleko egiteke dauden trantsizioekin koherentea den eredu bat egiteko.

2023. urtean, hiru alderditan lan egingo du euskal lankidetzak, aldi berean, finantza-lankidetzako tresna propio bat egiteko helburuarekin:

- Arau-egokitzapena eta euskal lankidetzak artikulatzen duen esparru legal eta instituzionalean egin beharreko aldaketak berrikustea, baita eraginpean hartu dezaketen erregulazio guztiak ere. Bereziki, FEDES berria, azken horrek FONPRODE ordeztzen duen neurrian.
- Eztabaida- eta ikaskuntza-komunitate bat sortzea, agente esanguratsuenekin, finantza-lankidetzako lerroa kontzeptualizatzen eta ondoren hedatzen lagunduko duen ekosistemaren barruan egon daitezkeenak, hain zuzen ere.
- Ekimen bat edo bat baino gehiago identifikatzea, balioestea edo diseinatzea ekimen hori edo horiek martxan jartzeko, 2024an, aurreikuspenen arabera.

Illo horretan, elkarrikketa irekitzeko eta prozesua abian jartzeko ikusten den lehenengo urratsa Bilbon 2023ko otsailaren 22an egingo den mintegi bat da. Bertan hasiko da euskal finantza-lankidetzaren subjektu kolektibo bat sortzeko eta datorren urtean lerro hori zehaztea ahalbidetu behar duen lan-plana zehazteko prest dauden agente horien guztien arteko elkarrikketa.

Artearen egoera labur bat aurkeztuko da mintegian, baita eztabaida hasteko lagungarriak izan daitezkeen hainbat esperientzia eta antzeko erreminta ere. Horrekin batera, agenteei testuinguru partekatu bat izaten lagunduko dieten materialak garatuko eta identifikatuko dira, modu irekian eta apriorismorik gabe ezartzeko bilatzen den elkarriketa eta eraikuntza kolektiboa.

Mahai-inguru bat izango da formatua, gehienez ere 30 pertsona gonbidaturekin, esaten dena entzun eta ordena bati jarraikiz mintzatu ahalko direnak, debaterako guneekin, hautatutako esperientzien arabera sortutakoak. Amaitzeko, ondorio eta adostasun nagusiak bilduko dituen errelatoretza edo berariazko testu bat emango da, aurrerantzean prozesua bideratzeko baliagarria izango dena.